

Hainbat mende lehenago eraikitako zeharkako horman bermatzen ziren harroinetan oinarritutako zurezko paldoek eutsitako egitura zuen etxeak. Hegoaldeko arteko hormaren gibelaldea harri xabalekin zolatu zuten, eta bertan egokitu zuten sukaldea. Bestalde, iparraldeko arteko hormaren azterketak adierazten digu etxe hau eraikitzean libre zegoela, eraikinik gabe, ondoko lursaila (egungo Artekale kaleko 37. zenbakikoa), leihoak ireki baitzituzten alde horretara. Leiho horiek itsutu egin zituzten gerora, XX. mendean, etxearen hormak goratu egin baitzituzten eta habe eta paldoen sistema guztiz berritu baitzuten. Aspaldiko horma zuloen arrastoak nabari dira iparraldeko horman. XX. mendean ere, berritu egin zituzten behe oineko lokalak, eta haietako batek zurgindegi bati egin zion leku. Berritze lan hauetan hormigoia bezalako materiala erabili zuten. Gibelaldean jarraituko zuen etxe sukaldean baldosazko zoladura bat egokitu zuten aurreko aldiaren eraikitako harri xabalezko zoruaren gainean.

Horrekin guztiarekin, orubea induskatuta, hainbat eraikuntza aldiaren arrastoak hauteman ditugula esan behar dugu. Eraikuntza aldi hauek ez dira erabat ikusgarriak, partzialki suntsituta daudelako, baina nahikoa informazioa eskaintzen dute orubeko eraikuntzaren historia osatzeko.

*B. Bengoetxea Rementeria*

#### B.9.1.2. **Barrenkale, 18**

Zuzendaritza: Román Rodríguez Calleja  
Finantziazioa: Cristina Peñalba  
Ubarrechena

#### B.9.1.2. **Barrenkale, 18**

Dirección: Román Rodríguez Calleja  
Financiación: Cristina Peñalba  
Ubarrechena

*Building work carried out in the northern third of the ground floor of the property standing at 18 Barrenkale Street enabled a new archaeological assessment in the historic quarter of the town of Durango. Since the building's walls were not affected, the excavation was necessarily limited, and the results and documentation of the evidence were, in many cases, partial. Nevertheless, new evidence was uncovered of oval and circular cuts in the geological substratum, thus adding to a long series of similar cuts detected during archaeological excavations carried out in different towns in the area. 18 Barrenkale Street was unable to offer any clues regarding their correct interpretation and dating, although our estimates suggest the Late Medieval period. The medieval wall was also documented, thus enabling us to propose certain hypotheses regarding possible layouts of the town's historic quarter.*

Barrenkale kalearen iparraldeko atalaren mendebaldea historikoki zehazteko modua eskaini duen etxadi formaz luzangaren baitan dago Barrenkale kaleko 18. zenbakiko orubea.

Tradizioz orube gotiko edo zaku-hondoaren formako orube deituaren ezaugarriak ditu, neurrien dion detetik, 19. zenbakiko higiezinari leku egiten dion orubeak: hiriko lursail oinplanoan angeluzuzena da, aurreko eta gibelaldeko fatxadak laburrak baina ardatz nagusia luzea.

Orubeko behe oinaren iparraldeko herenean eraman genuen burura esku-hartze arkeologikoa. Alde hau ez da erregularra, 18,50 m luze da, baina aurreko ataletik gibelalderantz egin ahala estutu

El edificio cuenta con una estructura de postes de madera apoyados en basas de piedra que a su vez se apoyaban en el muro transversal trazado siglos antes. La zona zaguera de la crujía sur se reserva para su utilización como cocina, que además se pavimenta con lajas de piedra. Por otra parte, el análisis del muro medianil norte indica también que en ese momento de la construcción de la casa la parcela contigua al norte (la actual Artekale 37) se encontraba libre, ya que se abren ventanas hacia ese lado. Esas ventanas se anularán en un momento posterior, ya en el siglo XX, cuando se produce una reestructuración de las alturas de los forjados de la casa, y su elevación en altura, lo cual trajo consigo la transformación profunda del sistema de vigas y postes. Quedan restos de los antiguos mechinales en la pared norte. Asimismo, en el siglo XX se procedió a reacondicionar los locales de la planta baja, en un caso, para su uso como taller de carpintería. Para ello se utilizó ya material como el hormigón. En la zona de la cocina de la casa, que siguió ubicada en la zaguera, se colocó un nuevo pavimento de baldosas sobre el antiguo, que era de lajas, y que fue realizado en la fase anterior.

Con todo ello, tras la excavación del solar se puede señalar que se han detectado restos de diferentes fases constructivas, que no son en absoluto espectaculares, sino que aparecen parcialmente destruidos, pero que aportan información suficiente para rehacer la historia constructiva del solar.

egiten da. Ekialdeko atalean, fatxadaren aurrean, 5,33 m zabal den artean, orubearen gibelaldean, oinaren gutxi gorabehera erdia hartzen duen aldean, 3,83 m zabal baizik ez da, eta alde bien arteko erdiko partean, orubea 3,00 metro zabal den partean, are estuago da.

Higiezina artean erabiltzen ari zirenez, beren horretan utzi genituen orube osoko alboetako lekukoak, eraikinari eusten dioten egiturei (perimetroko hormei eta zutikoei) leku egiten dietelako eta eraikinaren egonkortasunari eutsi nahi geniolako.

Adierazitako aldeak alde batera utzita, orube osoa induskatu genuen.

Burura eramandako esku-hartze arkeologikoak aukera eman du hiria fundatu zutenetik, Erdi Arotik, gure garaira arteko bilakaera kulturala bereizteko, nahiz eta prozesu historiko guztiak argi identifikatu ez ditugula aurreratu behar dugun.

### ***Emaitzen laburpena eta interpretazioaren hipotesia***

Alde honetako hirigintza prozesuaren berri ematen duen aztarna arkeologiko sorta batean islatzen da orube honen historiaren bilakaera. Eraikuntza aldietan eta hiribilduko harresiaren balizko aurkikuntzan hautesmaten dugu aipatu bilakaera.

Barrenkale kaleko 18. zenbakian dokumentatutako ezaugarri estratigrafiko gehien-gehienak estu lotuta daude orubean gertatutako eraikuntza prozesuekin, horietan dira historiaren inguruan informazio gehiena eskain dezaketenak eta interpretazio bat egiteko oinarriak eskaini ditzaketenak. Prozesu horiez gainera, interpretatzen zail diren beste aztarna batzuk identifikatu ditugu, hauek seguru asko hiriko espazio hau lehenengoz okupatu zuten aldira eramango gaituzte, baina oraindik deus gutxi ziurtatu dezakegu. Zuzenean maila geologikoan egindako ebaki batzuek ari gara, orubearen erdi ekialdean. Eskuarki ebaki zirkular irregularrak edo joera obalekoak dira, espazioan itxuraz antolatuta gabe eginak. Erabat dokumentatu gabe daude gehienak, lekukoaren azpian garatzen direlako edo hirigintza prozesuek eraginda estratigrafikoki nahasita daudelako.

Haiei kronologia zehatz bat ematea zaila da, areago haiek datatzeko irizpidea berauek betetzen duten geruzatik eta betegarri honetako materialetatik ondorioztatu behar denean. Depositu bakarra da, gure ustez orubeko lehenengo arkitektura uneari dagokiona. Geruza honetan aurkitu genuen materiala da, *a priori*, multzo osoko zaharrena. Bertan hiru ontzi zati, zehaztu gabeko formako ontzietan dagozkien hiru zati, aurkitu genituen, eta hauek guztiz bat datoz, ezaugarri morfologiko eta teknikoei dagokienez, Bizkaiko hiribildu batzuen fundazioko maila lotutako Erdi Aroaren azken garaiko ekoizpenekin. Eta Durango Erdi Aroaren azken garaiko beiratu gabeko ekoizpenekin ere antz handia dutela esan behar dugu, nahiz eta kasu honetan esmaltatutako ontzi zati batek, beste hiruen balio kronologikoa erlatibizatzen duen zatiak, eskaintzen digun depositu honen kronologia zehazteko modua.

Frente a los 5,33 metros en su tramo más oriental, junto al frente de fachada, la anchura en la zona trasera del solar, que viene a ocupar aproximadamente la mitad de la planta, queda reducida a 3,83 metros, con reducción algo menor en un tramo medio de transición entre ambas zonas, donde el solar alcanza los 3,00 metros.

El hecho de encontrarse el inmueble en uso obligó a dejar testigos laterales en todo el desarrollo del solar, acogiendo las estructuras portantes del edificio (perimetrales y pies derechos) con el fin de mantener la estabilidad constructiva.

La zona de excavación se desarrolló en todo el solar, excepto en los límites señalados.

El trabajo arqueológico realizado ha permitido distinguir una evolución cultural que partiendo desde el momento fundador de la villa en la época medieval, vive hasta el presente, aunque sin identificar con claridad todos los procesos históricos.

### ***Resumen de resultados e hipótesis de interpretación***

La evolución histórica del solar se ve en una serie de evidencias arqueológicas que denotan un proceso urbanístico en el enclave. Esto lo detectamos en diferentes fases constructivas-edificatorias, así como en la posible localización de la cerca de la villa.

La mayor parte de los rasgos estratigráficos documentados en el número 18 de Barrenkale tienen que ver sobre todo con procesos constructivos-edificatorios en el solar, siendo los que mayor información pueden dar en clave histórica-interpretativa. Aparte de esos procesos, se han localizado otra serie de evidencias de difícil interpretación que nos llevarían, posiblemente, a los primeros momentos de ocupación de este espacio de la villa, aún no conocidos suficientemente. Se corresponden con una serie de cortes documentados en la mitad oriental del solar efectuados directamente en el nivel geológico. Se trata, mayormente, de cortes circulares irregulares o de tendencia ovalada sin una ordenación clara en el espacio. La mayor parte de ellos se hallan en un estado de documentación incompleta dado que se desarrollan bien bajo los testigos, o bien sufren una alteración estratigráfica motivada por los procesos urbanísticos.

Dotarles de una cronología se entiende que es tarea complicada, más cuando el criterio para su data se debe extraer del estrato que lo colmata y su material. Aquel se trata de un único depósito ligado a lo que interpretamos como el primer momento arquitectónico en el solar. El material que encontramos asociado a dicho estrato es el que evidencia, *a priori*, una mayor antigüedad de todo el conjunto. En él se han localizado tres fragmentos de recipientes, de forma no determinada, que presentan características morfológicas y técnicas, que cuadran perfectamente con aquellas que se vienen identificando para las producciones tardomedievales asociadas a los niveles fundacionales de algunas villas vizcaínas. Y presentan rasgos asimilables a lo que se viene calificando de producciones tardomedievales no vidriadas en Durango. Aunque en este caso, la pieza que nos aporta una cronología al depósito nos la da un fragmento de recipiente esmaltado que nos relativizaría el valor cronológico de los otros tres fragmentos.

Orubearen okupazio arkitektonikoaren lehenengo unea adierazten du geruza honek. Hasteko, geruza geologikoan irekitako ebakiak amortizatzen dituelako; agian gainazala berdintzea bila zuten depositu honekin. Eta bigarrenik, orubearen erdialdean iparraldetik hegoaldera luzatzen den hormaraino iristen delako. Depositua honek alde hau berdintzeaz gainera, depositu isolatzailearena egingo zuen zoru geologikoarekiko, eta egiaztatutako aurreneko eraikineko geletako zoruak berdintzeko ere baliatuko zuten.

Orubearen erdialdean aurkitutako hormaren kokaguneak eta haren eraikuntza izaerako ezaugarriak adierazten digute arteko horma ez baizik eta perimetrotako itxiturari dagokion egitura dela, eta beraz, huts egiteko beldurrik gabe esan dezakegu irekitako eremuaren aurreko aldean okupatu zutela lehenik. Gainera ebakiak, eman zieten erabilera edozein izanagatik ere, orubearen aurreko aldean daude, aurreneko eraikin honi leku egiten dion espazio berean, eta itxura batean ez zuten ezertarako baliatu orubearen gibelaldea.

Geroago orubearen mendebaldean okupatu zuten alde hau eraikitzeko xedean, eta eraikina luzatu egin zuten toki honetan egun dagoen eraikineraino iritsi arte.

Lehen ere aipatu bezala jarduera eremua mugatzen duten baldintzetan aurkitutako aztarnen funtzioaren aurreko interpretazioa betiere zaila dela onartuta, esan dezagun hiru modutan dokumentatu genuela orubearen mendebaldeko okupazio mailakaturik hirigintzaren garapenaren baitan.

Hasteko, zuzenean geruza geologikoan bermatzen den jatorri antropikoko geruza dugu. Orubearen erdialdeko hormatik egungo higiezinaren gibelaldeko hormaraino luzatzen da. Hirigintza prozesu batekin identifikatu liteke, eta ez bizitoki espazio batekin, ez baitugu hipotesi hori planteatzeko aztarnarik topatu. Itxura guztien arabera zoruaren maila berdintzeko geruza edo depositua da.

Materialen ikuspuntutik esan dezagun depositu honetan halako antzinatasuna salatzen duten zeramika beiratu batzuk identifikatu genituela, agian Aro Modernoko azken garaietakoak, XVII. edo XVIII. mendeetakoak. Baina gisa honetako produktuak ez dira beti kronologikoki zehazten errazak, batez ere herri ekoizpenak direnean eta zatiak askotan txikiak direnean zalantzari ateak ixteko moduko irakurketa egiteko.

Prozesu horren ostean bigarren urratsa egin zuten eraikuntza arloan. Izan ere, paldo bati leku egiteko zulo bat identifikatu genuen orubearen ipar-ekialdeko muturrean, baina lehendik alde hau prestatu zutela ematen du. Ez dirudi aurreko geruzarekin harremana duenik, hura ebakitzen baitu eta bien arteko kota alde handiegia baita garai berekoak izateko.

Orubeko eraikuntzaren bilakaerak azken une bat ezagutuko zuen. Arestian adierazitako zuloa, paldo bati leku egitekoa, amortizatu eta lur eremua prestatzeko prozesua abiarazi zuten. Orube osoan barrera za-

Ese estrato estaría indicando un primer momento de ocupación arquitectónica del solar. Primero porque anula los cortes abiertos en el sustrato geológico, con lo que tal vez se busque la regularización de esa superficie. Segundo porque se prolonga hasta un muro norte sur que se localiza en la zona media del solar. El estrato no sólo podría estar regularizando la superficie, sino que valdría como depósito aislante con respecto al suelo geológico, y como nivelación de los suelos de habitación de lo que se interpreta como primera edificación constatada.

La posición del muro hallado en la zona media, así como sus características constructivas, que no apoyan una interpretación como un muro medianero, sino más bien como una estructura perimetral de cierre, permite determinar que la parte delantera de la zona abierta se ocupó en primer lugar. Resulta coincidente, a su vez, el hecho de que los cortes, sea cual fuese su uso, se localizan en la zona delantera del solar, el mismo espacio que ocupa esa primera edificación, dejando, aparentemente, sin uso reconocido la zona trasera del solar.

Posteriormente se llevaría a cabo la ocupación de la parte occidental con fines edificatorios, alargando la planta hasta llegar a la que actualmente se encuentra levantada en el enclave.

Esa ocupación progresiva de la mitad occidental del solar, como parte del progreso urbanístico dentro del solar, la documentamos de tres maneras -asumiendo siempre la difícil interpretación funcional de las evidencias localizadas cuando están los condicionantes delimitadores del área de actuación, ya mencionados.

Una primera, definida por un estrato de origen antropológico que se apoya directamente en el sustrato geológico. Tiene un desarrollo longitudinal desde el muro de la zona media hasta el muro zaguero del actual inmueble. Se puede identificar con un proceso urbanístico, no pudiéndola ligar a un espacio de habitación determinado, ya que no hay evidencias que lleven a tal hipótesis. Parece que podría tratarse de un estrato de regulación.

Desde el punto de vista material se le asocian una serie de cerámicas vidriadas que denotan cierta antigüedad que quizá pudiera llevarse hasta fines de la Edad Moderna, siglos XVII o XVIII. Pero dichas producciones no siempre son claras respecto a la cronología, sobre todo cuando pertenecen a producciones populares y cuando los fragmentos son muchas veces de pequeño tamaño como para hacer lecturas claras en ese sentido.

Tras este proceso parece darse un segundo paso evolutivo en lo constructivo. Ello se detecta con la presencia de un agujero para poste localizado en el extremo NE del solar para el cual parece que se ha realizado un importante trabajo previo de preparación del terreno. No parece tener relación con el anterior estrato ya que aparece cortándolo y la diferencia de cota entre uno y otro es demasiado grande como para tener cierta contemporaneidad.

La evolución edificatoria del solar parece tener por último un momento, en el que se constata la anulación del agujero de poste mencionado anteriormente, y en el que se produciría un proceso de preparación

baltzen den deposituak salatzen digu aipatu prozesua. Egungo arkitekturaren egiturarekin duen harremana oraingoz ezin zehaztu dezakegu hasierahasieratik azaldu ditugun baldintzatzaileak daudelako, lortutako dokumentazioa aztertutako eremuak berak mugatuta dagoelako.

Hori bai, estratigrafiaren ikuspuntutik depositu modernoagoa da, eta materialek ere horixe iradokitzen digute. Urre koloreko toskazko plater baten oinaren eta gorputzaren zati bat azaldu arren (segur asko XVII. mendekoa), berriagoak dira harekin batera azalduetako zatiak, toska fineko ontzien zatiak gehienak, hots, ekoizpen eredu Ingalaterratik inportatu eta Espainian XIX. mendetik aurrera nagusituko zen zeramika moldeak da nagusi. Identifikatu gabeko formako ontzi baten hondea, toska finekoa, Sevillako Pickman fabrikaren egina dela esan behar dugu.

Erdi Aroko harresia da orube honi izaera historikoa ematen dion beste elementua. Harresiak berak justifikatzen du Barrenkale kaleko 18. zenbakiko orubea arkeologikoki babestuta egotea. Itxura guztien arabera egungo eraikinaren gibelaldeko hormarekin egiten du bat; beraz, orubearen gibelaldetik luzatuko zen harresia, etxadi bereko beste orube batzuetan, harresia kontserbatu den orubetan, dokumentatu ahal izan den bezala.

Barrenkale kaleko 18. zenbakiko gibelaldeko hormak egitura arkitektoniko baten gainean hartzen du atseden. Alde honetako egungo eraikinaren zimentarriarena egiten duenez, oso litekeena da hiribilduko alde hau inguratzen zuen harresia izatea.

Egitura ikuspuntu deskribatzaile batetik aztertuta saiatuko gara harresiaren aurrean, egungo eraikinaren alde honetako zimentarriaren aurrean ala harresiaren hondakinak baliatu dituen eraikinaren zimentarriaren aurrean ote gauden argitzen.

Sarreratik gutxi gorabehera 18,60 metro tara dago eraikuntza elementu hau, irekitako atal osoan ageri da eta iparraldetik hegoaldera luzatzen da 2,40 metro tan. 0,80 eta 0,88 m bitarte garai da dokumentatutako atala. Gibelaldeko hormatik nabarmentzen da, baina ez dakigu zein den ibairi begira izango zuen aurpegi-rainoko lodiera. Izan ere eskailera bat dago kanpoko aldera, eta honek ez du horma ikusten uzten.

Harri koskorrez egina da; goiko lehen bi errenkadetan harriak erregularagoak dira formetan, eta modu ordenatuagoan egokituta daude. Oraingoz erresalbu interpretatu behar da haren erregulartasuna. Izan ere, goiko errenkadez ari gara, eta agian lotura handiagoko dute eraikinaren itxura hormako zimentarriarekin egituraren hormaren gainerakoarekin baino, eta horrek zalantzak eragiten ditu gibelaldeko hormaren edo harresia izan litekeen beste egitura baten atala den zehazteko orduan. Bestalde, esan dezagun kareorea erabili zutela harriak batzeko, eta leku jakin batzuetan teila arabiarraren puskak sartu zituztela.

Ikuspuntu deskribatzaile honetatik egin daitezkeen interpretazioen esparruan esan dezagun Durangoko hiribilduko Erdi Aroko harresia izan litekeena formaz

del terreno. Esto se vería en el depósito que se extiende por todo el solar. Su vinculación con el actual esqueleto arquitectónico quedaría por determinar ya que se cuenta con los condicionantes que desde un primer momento se señalaron: documentación acotada por el área sobre la que se ha actuado.

Si que se trataría del depósito más moderno en clave estratigráfica y materialmente nos revela esa modernidad. A pesar de contar con un fragmento de base y cuerpo de un plato de loza dorada –siglo XVII, previsiblemente–, el resto de los materiales que acompañan al fragmento tienen cronologías más recientes, quedando marcado todo el conjunto por la presencia de los fragmentos de recipientes de loza fina, producción industrial que arraiga en España a partir del XIX, importado el modelo de producción desde Inglaterra. De hecho uno de los objetos es un fondo de un recipiente de forma no identificada, salida de la fábrica Pickman de Sevilla, de loza fina.

El otro objeto que da un carácter histórico al solar es la cerca medieval. Ésta, justifica en buena medida el hecho de que el solar de Barrenkale 18 tenga protección arqueológica. Se supone que por una parte coincidente con el muro de cierre del actual edificio, en su parte trasera, discurría la línea de la antigua muralla, tal como se ha podido documentar en otros solares de la misma manzana, donde se han conservado restos de la cerca.

El muro zaguero del número 18 de Barrenkale descansa sobre una estructura arquitectónica, que funcionando como cimientos del edificio en este lado de la planta, pudiera identificarse con la cerca que circundaba este lado de la villa.

Analizando desde un punto de vista descriptivo la estructura, se intentará dilucidar si estamos bien ante la cerca, bien ante la cimentación del actual edificio en este lado, o bien si es cimentación del edificio que ha utilizado los restos de la muralla.

El elemento constructivo se halla a unos 18,50 m aproximadamente desde la entrada, localizándose en toda la parte abierta, con desarrollo norte-sur de 2,40 m. El alzado documentado oscila entre los 0,80 y 0,88 m. Sobresale del muro zaguero, no pudiendo definir en su totalidad el ancho hasta la cara que daría hacia el río. Ello es debido a la escalera que se ubica al exterior y que impide su visualización.

El aparejo se define con cantos, diferenciándose las dos primeras hiladas superiores, donde la piedra presenta unos caracteres más regulares tanto en la forma como en disposición. Su regularidad habría que tomarla de momento, con cautela. El hecho de que sean las hiladas superiores, y que puedan tener una relación más directa con la cimentación del muro de cierre del edificio que con el resto del alzado de la estructura, dejaría un margen de duda a describirla, bien como parte del muro zaguero o bien como parte de otra estructura, como pudiera ser la cerca. Por otra parte, el elemento de unión utilizado es la argamasa introduciéndose en ciertos sitios fragmentos de teja curva.

A niveles interpretativos, desde la vertiente descriptiva, la parte documentada de lo que podría ser la muralla medieval de la villa de Durango, dista bastante for-



oso bestelakoa dela kale honetan arkeologikoki aztertutako orubeetako gibelaldeetan dokumentatutako harresi atalekin alderatuta. Barrenkale kaleko 10., 12. eta 14. orubeetakoak ditugu gertuen. Azken horien bien kasuan esku-hartzeaz arduratu zen arkeologoa 14. zenbakiko orubean kontserbatutako harresi atalera mugatu zen lehenengo txostenean, 12. zenbakikoa «*ja guztiz desmuntatua baitzegoen ekialdeko aurpegiaren hainbat puntutan*». 14. zenbakikoari dagokionez, gisa honetan deskribatzen du egileak atal hau: «*harresiko estekadura harlandu txiki gotiko deituez egina da, hareharrizko piezak zizelaz landuak dira, elementuak ez daude eskuairatuak baina nahikoa modu erregularrean daude horma errenkada erregularretan antolatze*<sup>50</sup>».

Era berean, 10. zenbakikoa 14. zenbakiko orubean aurkitutakoaren antzekoa da, gisa honetan deskribatu zuen egileak: «*kalitate oneko harlandu txikiz egina da, blokeak 40 x 35 cm-koak. Errenkadak erregularrak dira, eta kanpoko aldera sei errenkada kontserbatzen ditu, guztira 1,85 m-ko garaierara iritsi arte. Kanpoko aurpegiko azken ukituak zizelaz eginak direla ematen du. Junturak txukun eta sendo eginak dira, kareore oso trinkoa erabili zuten horretarako, karea ugari, eta tarteka ikatzak, karea lortzeko harriaren kaltzina-zioaren emaitzak, alegia. Xoborra eta harri txikiak, bloke erregularren artean ziri gisa erabiliak, oso gutxitan baliatu zituzten*<sup>51</sup>».

Egile hauek identifikatutako harresiaren deskripzioa ez dator bat 18. zenbakiko orubean agerian utzitakoarekin, egitura soilik aurreneko bi errenkadetan baita haren antzekoa, eta lehen ere aurreratu baitugu horien inguruan zalantza batzuk sortzen direla.

Horren aurrean hainbat hipotesi planteatu litezke. Baliteke goiko errenkada bi horiek harreman motaren bat edukitzea Barrenkale kaleko 10. eta 14. zenbakiko orubeetan deskribatutako estekadurarekin, harresiarekin identifikatzen denarekin. Hala balitz, haien azpian dauden harri koskorren errenkadak zeri dagozkion argitu beharago litzateke.

Bestalde, baliteke bi errenkada horiek harresiarekin ez baizik eta egungo eraikinaren gibelaldeko hormaren zimentarriarekin lotuta egotea. Hala balitz, harri koskorrez osatutako estekadura zimentarriaren atala ote den, hori bai, ez hain landua, ala beste zerbait ote den, esate baterako harresia berreraikitzeke obra, argitu beharago litzateke.

Hasieratik mugatutako indusketaren ondorioa da arazo horren parte bat, ezinezkoa gertatu baitzaigu irakurketa osoa egitea. Hori bai, hiribilduko harresi zaharra luzatzen zen aldean bereizten den estekaduraren baitan egitura mota hau berria dela esan behar dugu.

malmente de los tramos documentados en las partes traseras de los solares sobre los que se ha actuado arqueológicamente en esta misma calle. Los más cercanos los tenemos en los números 10, 12 y 14 de Barrenkale. En los dos últimos casos, el arqueólogo que realizó las actuaciones se ciñe en su informe preliminar a la parte de la muralla conservada en el solar del número 14, visto que en el número 12 se encontraba «*prácticamente desmontada en varios puntos de su paramento oriental*». Con respecto al número 14 el autor la describe de la siguiente manera: «*el aparejo de la muralla se asocia a lo que ha dado a denominarse como sillarejo gótico, con piezas areniscas labradas a picón, que no escuadran los elementos pero sí les otorgan la regularidad suficiente como para que la fábrica pueda organizarse en hiladas regulares*<sup>50</sup>».

De igual manera, en el número 10, la parte de muralla registrada se asemeja a la localizada en el 14, describiéndola la autora de la siguiente manera: «*está realizada en sillarejo de buena calidad, con bloques de dimensiones de 40 x 35 cm. Mostrando clara regularidad en las hiladas trazadas, de las que en la cara extramuros quedan hasta seis, alcanzando una altura de 1,85 m. El acabado de la cara externa parece ser realizado a picón. Las juntas están realizadas cuidadosa y sólidamente, empleando argamasa muy consistente, en la que abunda la cal, junto con intrusiones de carbones, producto precisamente de la calcinación de la piedra para conseguir la cal. El ripio y piedras menudas colocadas en forma de cuña entre los bloques regulares, se emplean ocasionalmente*<sup>51</sup>».

Lo descrito por los autores sobre lo que han identificado de la cerca, no se asemejaría a lo localizado en el número 18, donde su tipo de fábrica se identificaría únicamente con las dos primeras hiladas, y ya se ha señalado anteriormente la problemática que hay entorno a ellas.

Ante esto, se pueden lanzar una serie de hipótesis. Pudiera darse el caso de que esas dos hiladas superiores pudieran tener algún tipo de relación con el aparejo descrito en los solares de los números 10 y 14 de Barrenkale, y que se identifican con la cerca. En tal caso, la cuestión a dilucidar es qué son esas hiladas de cantos situadas bajo aquellas.

Por otra parte, también podría ser que esas dos hiladas tengan relación no con la cerca, sino con la cimentación del muro trasero del edificio levantado actualmente. Entonces habría que preguntarse si el aparejo de cantos son parte también de esa base de cimentación, pero más tosco, o bien es otra cosa, como por ejemplo una reconstrucción de la cerca.

Parte de esta problemática es debida a los límites de excavación con los que partimos de base y que impiden hacer una lectura completa. Lo que sí se puede decir es que este tipo de fábrica es algo nuevo dentro del aparejo que se localiza en la zona por donde discurriría la antigua muralla de la villa.

<sup>50</sup> Ibarra Álvarez, J.L. (2005): Esku-hartze arkeologikoa Barrenkale kaleko 12. eta 14. orubeetan (Durango, Bizkaia). Memoriaren lehen aurrerapena. Emaitzen laburpena. 21. orrialdea.

<sup>51</sup> Bengoetxea Rementería, B. (2000): «Barrenkale, 10 (Durango)». *Arkeoikuska* 99. Bilbo, 299. or.

<sup>50</sup> Ibarra Álvarez, J.L. (2005): Actuación arqueológica en los solares nº 12 y 14 de Barrenkale (Durango, Vizcaya). Avance preliminar a la memoria. Resumen de resultados. Página 21.

<sup>51</sup> Bengoetxea Rementería, B. (2000): «Barrenkale, 10 (Durango)». *Arkeoikuska* 99. Bilbao, p 299.

## Konklusioak

Barrenkale kaleko 18. zenbakiko orubean burura eramandako esku-hartze arkeologikoak argitu beharreko kontu batzuk utzi ditu orubearen eta, hedaduraz, Durangoko hiribilduaren historiaren berreraikuntzaren inguruan. Bertan esku-hartzeko proposamenean aurkeztutako helburuak bete gabe geratu dira hein batean. Izan ere, orube hau egiazki noiz okupatu zuten argitu nahi genuen, eta hiriaren fundazio aldiari begira proposatzen den kronologiarekin bat datorren ala ez ikusi nahi genuen; era berean, harresia identifikatu eta ezaugarritu nahi genuen Erdi Aroko hirigunearen baitako elementu gisa, eta gisa horretan argitu nahi genuen hiriaren aurreneko aldiari lotutako harresia ba ote zegoen ala ez.

Nolanahi ere den, ukitu gabeko espazio bat utzi du esku-hartze arkeologikoak, etorkizunean balizko azterketak egiten ez badira esku-hartze arkeologikoa amaituta egiten ditugun galderei erantzun ahal izateko. Galdera hauek, funtsean, aurkitutako aztarna multzoaren aurreko interpretazio irakurketekin zerikusia dute, informazioa oraindik osatu gabe baitago.

Orubearen gibelaldean dagoen egiturari dagokionez, Erdi Aroko harresiaren kokalekuarekin bat egiten duen arren, ezin ziurtatu daiteke harresia denik. Nolanahi ere den, kontu hau luze gabe argituko dugulakoan gaude.

Orube hau interpretatzeko orduan aipagarria da bertan hirigintzaren bilakaera identifikatu izana, nahiz eta datak ezin zehaztu ditzakegun. Bilakaera honek Behe Erdi Aroko uneraren batean izan zuen jatorria eta segida izan zuen Aro Modernoan eta aro garaikidean.

## Conclusiones

La intervención arqueológica realizada en el número 18 de Barrenkale ha dejado varios interrogantes en la reconstrucción histórica del solar y por ende de la villa de Durango. Objetivos que se presentaron en la propuesta de actuación se han visto incumplidos en parte. Entre ellos estaba el de definir el momento efectivo en el que se realizó la ocupación de este solar y su coincidencia o distanciamiento en relación con la cronología que se viene estimando para la fase fundacional del enclave; así como identificar y caracterizar la cerca como un elemento dentro de la trama urbana medieval, y con ello resolver el problema de la existencia o no de una muralla ligada a la fase primera de la villa.

Aún así, la actuación arqueológica ha dejado un espacio sin actuar, que a falta de un estudio en posibles futuros trabajos, podría dar respuestas a las preguntas que nos hacemos una vez terminada la actuación arqueológica y que tienen que ver sobre todo con las lecturas interpretativas del conjunto de las evidencias halladas, dejando, entre otras cosas, mucha información incompleta.

En referencia a la estructura que se encuentra en la parte zaguera del solar, a pesar de compartir con la cerca medieval su localización, no puede asegurarse con exactitud que sea la muralla. Aún se está a la espera de poder concretar tal identificación.

Lo que se ha podido valorar como un hecho positivo en la interpretación del solar, es que ha habido una evolución urbanística en el enclave, no pudiendo concretar en fechas. Una evolución que presumiblemente tiene su origen en un momento Bajomedieval y que tiene sus transformaciones a lo largo de la Edad Moderna como en época contemporánea.

R. Rodríguez Calleja

## B.10. ELORRIO

### B.10.1. Zubiaur-Txiki baserria

Zuzendaritza: Unai Aurrekoetxea  
Fernández  
Finantziak: T. Berriozabal Bengoa;  
M<sup>a</sup> A. Arregi Larrabe

### B.10.1. Caserío Zubiaur-Txiki

Dirección: Unai Aurrekoetxea  
Fernández  
Financiación: T. Berriozabal Bengoa;  
M<sup>a</sup> A. Arregi Larrabe

*Intervention documenting the different renovations to the building since its construction during the 16<sup>th</sup> century. No elements predating this period were uncovered.*

Zubiaur Txiki-Arregi baserria Iguria auzoan dago, Elorrioko udal barrutian, eta bertan sagardoa egiten zutela esan behar dugu. XVI. mendean eraiki zuten eta jatorrizko egituraren parte bati eusten dio, nahiz eta, logikoa denez, denboraren joanean burura eramandako berritze lanek ezkutaturik edo haietan urturi-rik dagoen.

El caserío Zubiaur Txiki - Arregi se sitúa en el barrio de Iguria en el término municipal de Elorrio y se caracteriza por haber sido un caserío sidrero. Su construcción se remonta al siglo XVI y mantiene parte de la estructura original, aunque como es lógico, el paso del tiempo ha hecho que se diluya entre las reformas posteriores.